

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

*Arlo hauetako jarduerak biltzen ditu: zinema, kontzertuak, ikastaroak, erakusketak, egoitza artistikoa eta bisita gidatuak*

Astelehena, 2017.eko azaroak 20

Nafarroako Gobernuak, azaroaren 20tik 26ra asterako, jarduera kultural hauek antolatu ditu:

### HITZALDIAK

[Hiru emakume, Sylvia Plath-ena: Amatasuna](#)

**Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa**  
**Astelehena / 18:00etan.**

Zikloa: Irakurketa feministak

Hizlaria: Piluka Labayen

Sarrera librea aretoa bete arte. Prezioa: dohainik

[Euskara XVII. mendetik XIX. mendera](#)

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia. Artxiboko ekitaldi-aretoa**  
**Asteazkena / 19:00etan.**

Juan Madariaga Orbea-ren eskutik. UPNA-NUP

“Euskara eta Nafarroa” zikloa, NAVARRORUM erakusketaren barruan.



Nafarroako liburutegiak Gloria Fuertes jaiotegunaren mendurren erakusketa batekin ospatzen du.

### ZINEMA

[Ilehorien etsaia](#)

**Nafarroako Filmoteka**  
**Asteartea / 20.00etan**

Kritikoen arabera (eta autorearen arabera ere bai) hau da benetan hitchcockiarra den lehen pelikula. Marie Belloc Lownes-ek idatzi zuen testua eta 1911ean argitaratu zen, istorioaren gai nagusiari forma emanaz eta Jack Destripatzailearen hilketak inspirazio hartuta.

Zuzendaritza: Alfred Hitchcock

Film mutu honen proiektzioa zuzeneko piano musikarekin lagunduko da, Josetxo Fernandez de Ortegaren eskutik.

### [Zinetika. Dance & Film Festival](#)

#### **Nafarroako Filmoteka**

#### **Asteazkena, Osteguna / 20.00etan**

Zinetikak zinema ikuspuntu batetik erakusten du mugimendua. Kamera eta gorputzaren arteko harreman anitzak ikertzea da helburua. Plataforma bat da, eta artisten eta nazioarteko entitateen artean loturak sustatzeko sortu zen. Azken finean, Zinetikaren xedea kultura elkartrukatzea da.

Jaialdi honek klase magistral bat eta film laburrak proiektatzeko bi saio barneratzen ditu. Film laburren proiektzio eta lehiaketa azaroaren 22 eta 23 bitartean egingen da.

### [Hasaki Ya Suda - Twaaga](#)

#### **Nafarroako Filmoteka**

#### **Ostirala / 20.00etan**

Hasaki Ya Suda (Ezpatak, Burkina Faso/Frantzia, 2010)

2100. urtea da, gutxi gora behera. Aldaketa klimatikoak lehortze izugarriak eragin ditu eta goseteak eta gerrak sortu dira.

Twaaga (Garai ezina, Burkina Faso/Frantzia, 2013)

Burkina Faso, 1985.urtea. Lagunik ez duen zortzi urteko haurra da Manu. Hori dela eta, toki guztietara bere anai nagusi Albert eta bere bi lagun Kabore eta Ibourek inoan da.

## **TAILERRAK**

### [Bruja soy, mujer espiritu-ren inguruko tailerra Publikoari irekita](#)

#### **Huarte Centra**

#### **Larunbata / 11.00etan**

Akanpada. Bruja soy, mujer espiritu-ren inguruko tailerra Publikoari irekita.

Azaroak 25, 11:00etan. Gutxi gora beherako iraupen: 45 min.

Kafeta-zine con Una Archiva del DIY

Huarte Zentroa

Larunbata / 11.00etan

### [- Aperitifak. Artistekin topaketa informalak. Kafeta-zine con "Una Archiva del DIY". Gelen Jeleton .](#)

"Una Archiva del DIY" fanzinotekaren aurkezpen:

Fazine-ra (argitalpen autoeditatua eta autogestionatua) gerturatzeko bat, erresistentzia ekintza gisa eta honen erabilera pribatutik publikora pasatzeko. Gelako aktibismotik (egunerokoan giltzapean) gutun formatura eta aitorten publikora (publiko egitearen ekintza). Fanzinea, esaten ez den horretaz, kontatzeko zaila den horretaz, edo ez esateko esaten dizuen horretaz, hitz egiteko baliabide gisa.

## **ERAKUSKETAK**

## Materia betiko

### **Nafarroako Museoa (4.1 aretoa) 2017/11/18 - 2018/02/18**

Nafarroako Museoa mikroerakusketa berri bat jarri du ikusgai: "Materia betiko", Alfredo Díaz de Cerio-rena. Margolari, eskultore eta poeta nafarraren lan-multzo txikia erakusten du, urtarrilean hamar urte beteko baitira hil zenetik.

Mikroerakusketak egilearen lan plastikora zein poetikora hurbildu nahi du ikuslea, haren azken lanetako batzuen eskutik.

## Ni, denetan okerrena

### **Oteiza Museoa, Nafarroako Museoa, Huarte Zentroa**

**2017/10/27 - 2018/02/04**

24 artistaren lana erakutsiko dira, eta Maite Garbayo Maeztu izango da komisarioa. Nafarroako Museoaren, Jorge Oteiza Fundazio Museoaren eta Huarte Arte Garaikideko Zentroaren elkarlanaz egindako proiektua da.

Artearen Historian doktore Maite Garbayo Maeztu ikerlari eta idazleak gauzatutako komisariotza- eta arte-proiektu hau teoria kritiko feministatik abiatzen da, emakumeak bazterrean utzi dituen ezagutza produzitzeko eta transmititzeko modu hegemonikoak zalantzan jartzeko.

## Navarrorum

### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia**

**2017/09/21 - 2017/12/31**

Bisita gidatuak: Larunbatetan, igandeetan: 11.00etan (euskaraz) 12.00etan (gaztelaniaz) NAVARRORUM ez da euskararen historiari buruzko erakusketa bat. Baina, zernahi gisaz, aurre egiten dio erronka jakin bati: idazki batzuen bidez euskararen aztarna dokumentala agertzea, kontuan izanda ia mila eta bostehun urtean ahozko mintzoa izan zela. Ahozko hizkuntza, idazten ez zena. Erakusketarako, hiru dozena dokumentu hautatu ditugu. Euskarazko agiriez gain, euskarari buruzko agiriak ere badaude tartean. Denek badute bereizgarri bat, nafartasuna: Nafarroari buruzkoak, Nafarroan idatziak edo nafarrek eginak dira. Gehienak gure artxibo, museo eta liburutegietatik hartu ditugu, baina badaude Afrikako, Ameriketako eta Europako beste dokumentu zentroetakoak ere.

## Gloria Fuertes poetaren mendeurrenari buruzko erakusketa

### **Nafarroako Liburutegia. Erakusketa-aretoa**

**2017/11/07 - 2018/01/05**

Sarrera: librea

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etik 20:30era. Larunbatetan, 11:00etatik 13:30era.

Erakunde laguntzailea: Madrilgo Fernán Gómez Kultur Zentroa

Mendeurrenaren erakusketa handia ikusgai egongo da azaroaren 7tik 2018ko urtarrilaren 5era. Gloria Fuertes Fundazioak eta Fernando Fernán Gómez Zentroak antolatu zuten duela ehun urte jai zen poeta madrildarraren omenez. Madrilen eta Bilbon ikusgai egon eta gero, Iruñean (Nafarroako Liburutegian) ere bisitatu ahalko da. Izan ere, hemen amaituko da Gloria Fuertes inguruko ospakizunez betetako urtea.

## EGOITZA ARTISTIKOA

### [Sorgina naiz, emakume arima](#)

**Huarte Zentroa**

**2017/10/27 - 2017/11/26**

Proiektu hau, 24 egunen bueltan, Laura Gurbindo belar-biltzailearekin batera garatuko den ikerketa txiki bat da. Lauraren laguntzarekin, lehengo eta oraingo Zugarramurdiko "sorginek" abortatzeko edo ezaugarri afrodisiakoak dituzten infusio, edabe eta ukenduak egiteko belarren eta Mexikon erabiltzen direnen arteko arketipoak eta antzekotasunak bilatzen saiatuko naiz. Irteerako formatuta tamaina ertaineko fanzine bat izango da, bertan informazioa marrazkiaren laguntzaz azalduko da.

## HAURENTZAKO AISIA

### [Ongi etorri ipuinetara](#)

**Nafarroako Liburutegia. Haurrentzako aretoa**

**Asteazkena / 18:00etan.**

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia

Sarrera: librea aretoa bete arte

Jarduera boluntarioekin egiten da

## BISITAK ETA IBILALDIAK

### [Gloria Fuertes poetaren mendeurrenari buruzko erakusketa](#)

**Nafarroako Liburutegia. Erakusketa-aretoa**

**Osteguna, 11:00etan. / Larunbata, 12:00etan.**

Zikloa: Gloria Fuertes

Bisita gidatuak euskaraz

Sarrera: librea, baina alde zurretik eman behar da izena talde osatuko dela ziurtatzeko.

Erakunde laguntzailea: Madrilgo Fernán Gómez Kultur Zentroa.

### [Ni, denetan okerrena](#)

**Nafarroako Museoa**

**Osteguna / 17.00etan**

Irakasleentzako prestakuntza bisita Celia n Larumberen eskutik

17:00etatik 19:00etara.

Proiektua ezagutzeko bisita-lantegia, gaur egungo sorkuntzan ezagutzaren forma berriek duten presentziaren inguruan gogoeta egiteko.

Leku mugatua. Informazio gehiago: [www.museodenavarra.navarra.es](http://www.museodenavarra.navarra.es).

### [Erakusketara bisitak Ni, denetan okerrena](#)

## **Nafarroako Museos**

### **Igandea / 12.30etan**

Erakusketara bisitak, Mireya Martinek, Sofía Alberok eta Eva de la Vegak lagunduta.

### **[Bisita gidatua Iruñeko katedralaren klaustroa konpontzeko lanetara](#)**

#### **Iruñeko katedrala**

#### **Igandea / 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan**

Ekainean bukatu ziren Iruñeko katedralako klaustroaren iparraldeko aldea zaharberritzeko lanak; 2016ko abuztuan hasi ziren, eta hormartearen barnean eta lorategiko fatxadan egin dira. Horregatik, Nafarroako Gobernuak Ondarearen Zerbitzuak doako bisita gidatuen programa bat antolatu du, lan horiek bertatik bertara ikusteko aukera ematen duena.